

MUGARRI 15: HERRI MUSIKAREN TXOKOA OIARTZUNEN

Abuztuaren 1ean izan zen liburuaren aurkezpena Oiartzungo udaletxeko areto nagusian

Abuztutik kalean da Oiartzungo udaletxeak argitaratzen duen Mugarri bildumako 15. liburua. Oraingo honetan gaia Herri Musikaren Txokoa, eta honek Oiartzunen egin duen ibilbidea, da. Liburua idatzi duena berriz bertako arduraduna den Juan Mari Beltran Argiñena da.

Euskaraz idatzia dago eta berekin gaztelerazko itzulpena dakar. Gainera, hizkiekin batera imajinak ditu: argazki moduan eta bideo moduan. Bai, liburuak berekin Kepa Ugartek ekoiztutako DVD bat du.

Lan honetan egileak Herri Musikaren Txokoak Oiartzunen egin duen ibilbidea kontatzen du. Zuzenak izatez gerotan Oiartzungo Ergoien auzora iritsi aurreko proiektuaren nondik norakoekin hasi eta gaur egun ezagutzen dugun herri musikaren topalekura iritsi arteko guztiak azaltzen ditu. Herri Musikaren Txokoa sortu aurretik musikarekin eta kultura herrikoiarekin lotutako bizitza eta urte mordoskako lana dago eta liburu hau eta, dudarik gabe, dokumentazio zentroa bera horren nolabaiteko islada bat dira.

Liburua Eresbilgo zuzendaria den Jon Baguesen hitzaurrearekin hasten da. Ondoren Juan Mari Beltranek Herri Musikaren Txokoaren aurre historia izan zena kontatzen du. Hala, bilduma osatzen duten

soinu-tresna, liburu eta diskoak biltzen nola hasi zen kontatzen du. Baita grabazio eta filmazioak egiten zergatik hasi zen eta nola jarraitzen duen ere.



Hurrengo atalean hainbeste dokumentu bildutakoan eta kultura zabaltzeko grinak bultzatuta jendeari material hori erabiltzeko aukera emango zion zerbait sortzeko emandako bueltak azaltzen dira. Honek proiektu bat sortzea ekarri zuen. Zertarako? Dokumentazio zentro bat sortzeko.

Gero hainbat leku ezberdinetan aurkeztu beharko zen proiektua. Liburuan irakur daitekeen bezala, proiektua alde batean eta bestean azaldu ondoren azkenik aurrera eramango zuen jendea

Oiartzunen topatu zuen.

Behin egiteko lekua topatutakoan bilduma gordeko zuen eraikuntza egokitzea etorri zen. Batetik liburu, disko eta grabazioak gordeko zituen artxiboa eta bestetik soinu-tresnak erakutsiko zituen erakusketa. Urte mordoska eta lan ordu askoren ondoren 2002-an ireki zizkion Herri Musikaren Txokoak atek jendarteari.

Liburuaren hurrengo ataletan gaur egunera arte dokumentazio zentroaren ibilbidea zein izan den kontatzen da. Bertan urtero antolatzen diren ekitaldiak aurkeztzen dira. Hala Herri Musikaren inguruan urtero antolatzen diren Jardunaldiez, hiru hilabetero Herri Musika bizirik dagoela erakusten duten Kontzertuez, etorkizunean Herri Musikan erabiltzen diren soinu-tresnak jotzen ikasi nahi duenari atek irekitzen dizkion Herri Musika Eskolaz, dokumentazio zentroaren inguruan gertatzen direnak kontatzen dituen HMberriak Buletinaz, interneten eskuragarri dagoen web orriaz, liburuaren bilduma propioaz, etab. Baina ez da hor bukatzen liburu. Lehenago etorkizunari begira zein helburu dauden irakur dezakegu liburuan.

Azkenik bildumaren inbentarioa gehitzen du liburuak ondoan soinu-tresnen bildumatik aukuratutako 246 tresnen argazkiak ikus daitezkeelarik.

KONTZERTUAK HM Txokoan
Udazkeneko kontzertua

2008ko urriaren 25ean - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

Oiartzun'go
AROZENATARRAK



Arozena txistuaren munduan abizen ezaguna da. Aitor, Urko eta Xanet txistulari familia honetako laugarren generaziokoak dira.

Gazte-gaztetatik txistu ikasketak hasi zituzten Oiartzunen, lehen irakaslea Juanito Arozena, beraien aita, izan zutelarik. Ondoren irakasle mordoia izan zuten Errenteriako eta Donostiako kontserbatorioetan. Aitorrek eta Urkok goi mailako txistu ikasketak burutu zituzten eta Xanetek gitarraren bideari ekin zion.

Egun, Aitor Donostiako udal txistulari bandako partaidea da eta bertako musika eskolan irakasle da. Urkok, txistu ikasketez gain, perkusioko goi mailako ikasketak ere burutu zituen eta Musikeneko irakaslea da alor honetan. Xanetek hainbat erromeri eta dantza taldetan hartu du parte, azkena Akelarre taldean. Egun musikatik kanpo badabil ere noizean behin kantari nahiz musikariei laguntzen ere aritzen da.

Txistuarekin batera instrumentu desberdinak

ikasi izanak eta estilo ugari jorratu izanak ikuspegi zabal baten jabe egin ditu hiru anai hauek. Ikuspegi hori zabaltzeko asmoz emanaldi hau antolatzeraz animatu dira.

Oinarrian txistularien betiko dantzarako eta kontzertuetarako erreperorioa hartu eta perkusio eta gitarra klasikoaz lagundutako emanaldia da. Jorratuko dituzten piezen artean dantzarako erritmo desberdinak aurkituko ditugu: jota, polka, fandango, arin-arin, etab.

Udako kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita.

Prezioa: 15 euro.

Guinea-Bissau'ko MAMADU CISSOKO

Guinea-Bissauko musikari honek Afrikako mendebaldean oso zabaldua dagoen harpa gisakoa den KORArekin egindako musika ekarriko digu. Eskualde hartan kora usadioari jarraituz jotzen duenari DJELI izena ematen zaio. Hau Europako bardoen gisakoa da.

Djeli hitzak jatorria Mandinga etniaren Malinke hizkuntzan du eta odola esan nahi du. Hizkuntza berdinean djeliya hitzak odol bidezko transmisioa esan nahi du eta horren bitartez azaltzen dute artista hauen lan edo zientzia. Mandinga herria, jatorria Malin duena, kastetan banatuta egon da eta horietako bat izan da djelien kasta. Historikoki, ofizio hau gurasoetatik seme-alabetara pasa izan da eta djeli familiak errege-gudarien familiekin lotuak egon dira. Hau da, errege-gudari familia bat (diatigui deitzen zaie familia hauei) djeli familia batetara lotuta zegoen eta alderantziz. Batak bestea behar zuen ongi izateko.

Esan bezala, djeli jaio egiten da eta txikitatik bere hezkuntza sendiaren ofiziora bideratuta dago. Sendiko zaharrenak arduratzen dira heziketa horretaz eta berau 9 ataletan banatuta dago, hauei bakoitza bizitzako aro batekin lotuta dagoelarik.

Beraien betebeharrak izan dira historialari, mezulari, sendien arteko gatazketan bitartekari, ipuin kontalari lanak. Kontuan izan behar da beraien gizartean idaztea oso pertsona gutxiren ahalmena izan dela eta garrantzi handia duela ahozko literaturak. Djeliak izan dira Mandinga herriaren ohiturak eta historia gorde dituztenak. Aldi berean, mundu zabalean goi mailan jartzen den ahozko literaturaren jabe dira.



**kontzertu honen
laguntzaileak:**



HM JARDUNALDIAK KANPAIKA

Azaroaren azkeneko asteburuan, azaroak 29 eta 30, ospatuko diren 7. Herri Musikaren Jardunaldiek kanpaiari buruz gehixeago jakiteko aukera emango digute. Haiei dagozkien alde ezberdinak azalduko dituzte Euskal Herriko eta Valentziako hainbat adituk, horien artean lekuaren arabera aldatzen diren jotzeko zenbait era entzuteko aukera izango da.



Oiartzungo San Esteban elizako kanpandorra. HMT

HERRI MUSIKA ESKOLA: TXISTUA

Urrian Herri Musika Eskolak ikasturte berria hasi du. Bere eskaintzan klasiko bihurtu diren txalaparta, herri perkusioa, dultzaina eta albokaren ondoan aurten txistu eta danbolin ikastaroa sartu da. Lartaun Txistulari Elkartearekin lankidetzan aurreko urteetan beraiek eman izan

ARDITURRIKO MEAZULOAK

Oiartzunen kultur eskaintza handitu da berriro. Lehendik Luberri geologiaren inguruko interpretazio zentroa eta Herri Musikaren Txokoa dokumentazio zentroa bagenituen, hemendik aurrera meatzaritza gaitzat duen Arditurri interpretazio zentroa ere ikusi nahi duenarentzat prestatuta dago. Aiako Harriko Parke Naturelean kokatuta dago Arditurri, Oiartzungo Ergoien auzoan, eta bertan beti izan dira meazuloak.

Lehengo ekainaren lehenengo igandean ireki zizkien ofizialki ateak bisitariari horretarako herri guztian ongi etorria emateko jai antolatu zelarik, baita Herri Musikaren Txokoan ere.

BISITARI KOPURUA

Uztaila: bisitari kopurua: 148

Antolatutako taldeak: 7

Abuztua: bisitari kopurua: 155

Antolatutako taldeak: 4

Iraila: bisitari kopurua: 111

Antolatutako taldeak: 5

Bisitari kopurua ekainera arte: 19.322

7. HM JARDUNALDIAK EGITARAUAREN AURRERAPENA

2008-11-29, larunbata

10:00'etan, Auzokalte Elkarte
Hitzaldiak

- Lo que dicen las campanas
- Inventarios y restauración de las campanas de las catedrales
- Algunos aspectos musicales de las campanas y sus toques

15:30'etan, Auzokalte Elkarte

Mahaingurua

Ikuspuntu ezberdinetatik kanpaiaren inguruko gogoeta egiteko gonbidapena

19:00'tan, Doneztebe enparantzan

Kanpai eta ezkilen hotsak

2008-11-30, igandea

10:00'etan, Tailerrak

- Kanpaiak jotzen ikasteko materiala
- Kanpaien azterketa akustikoa

12:30'etan, Doneztebe enparantzan

Kanpai joaldiak

dituzten ikastaroak indartu nahi izan dira etorkizunari begira Oiartzungo txistulari harrobia sendotzeko asmoz. Txistua eta danbolina jotzen erakusteaz arduratuko den irakaslea, lan horietan eskarmentu handia duen Iñaki Eguren aietarra izango da.

Lerro hauek aprobetxatu nahi ditugu Iñakiri ongi etorria emateko eta txistulari zaleak txistu eta danbolina jotzen ikastera deitzeko.



Arditurriko Interpretazio Zentroa. ARDITURRI

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org

